



## [Eusk/Cast] Topasera martxaren Kronika/ Crónica de la marcha a la cárcel de Topas

---

AMNISTIAREN ALDEKO ETA ERREPRESIOAREN AURKAKO MUGIMENDUA :: 19/10/2015

"Los gritos a favor de la amnistía y la lucha fueron continuos, los presos sacaban telas a las ventanas, el eco de los gritos se oía dentro de la cárcel"

### **[Euskaraz]**

Goizeko 6ak pasata atera ginen Lopidanatik Topaseko espetxera bidean. Ordubete baino gutxiago bidean generamanean, Armiñoneko peajeon, Guardia Zibilaren kontrola genuen zain. Ordu eta erdi eduki gintuzten geldirik. Bitarte horretan, denak identifikatu, grabatu, eta lau lagun jaitsi, autobusetatik aldendu eta hogeit hamar minutuko galdeketa egin zieten, miatu ere bai.

Hamabi eta erdietan Topaseko espetxera heldu ginen. Bertan guardia zibila genuen zain, aparkalekuaren sarrera oztopatu ziguten, inguruan egon ahal ginela esan ziguten eta bolanderarik ezin genuela erabili. Amnistiaren eta borrokaren aldeko oihuak etengabeak izan ziren. Zenbait leihotatik presoak oihalak atera zituzten, oihuen oihartzuna entzuten zen espetxe barruan. Euskal Herrirako bidean jarri baino lehen, ondoan zegoen zubi batera igo ginen beste modulu batzuk ikusi ahal izateko, lagun batzuek espetxeari buelta ematen zioten bitartean. Han geundelarik kide batek ikurriña bat atera zuen ziegako leihora, oso momentu hunkigarria izan zen, eta zaila egin zitzaigun agur esatea eta autobusetara bueltatzea.

Zaballako espetxera hurbiltzea ezinezkoa izan zen, Ertzaintzaren kotxe batzuk bidean gurutzatuak zeudelako, espetxera hurbiltzea galaraziz. Autobusetatik jaitsi eta guregana hurbildu ziren, ez genuela baimenik han egoteko, denak identifikatu ahal gintuztela, eta horren ondorioez abisatu gintuzten... Gure helburua argia zen, Txus eta Iboneri gure elkartasuna adieraztea, beraz beste txoko bat bilatu genuen, barrukoek gure elkartasuna entzun zezaten.

Basauriko espetxea izan zen gure azken xedea, han ere Ertzaintzaren harrera izan genuen, aurrekoan bezala. Baimenik ez genuela, han egon ginen 15 minutuz, bolandera batzuk eta oihu batzuk bota genituen, Aitzolek entzun zezan. Eusko gudariak abestu eta amaitutzat eman genuen martxa, oztopoak oztopo, baina oso balorapen positiboarekin.

### **[Castellano]**

Pasadas las 6 de la mañana salimos de Lopidana hacia la prisión de Topas. Cuando no llevábamos una hora en marcha, en el peaje de Armiñón, teníamos un control de la Guardia

Civil esperándonos. Estuvimos parados una hora y media. En ese tiempo fuimos identificadas, y grabadas, y bajaron a cuatro personas, a las k apartaron de los autobuses, cachearon e interrogaron durante 20 minutos.

A las 12.30 llegamos a la prisión de Topas, allí también teníamos esperando a la Guardia Civil, nos impidieron entrar al parking y nos avisaron de que no se podía utilizar material pirotécnico. Los gritos a favor de la amnistía y la lucha fueron continuos, los presos sacaban telas a las ventanas, el eco de los gritos se oía dentro de la cárcel. Antes de volver a Euskal Herria, nos acercamos al puente desde donde se veían otros módulos, mientras algunas daban la vuelta a la cárcel, entonces volvieron a salir telas a las ventanas, desde una celda una ikurriña, seguramente el momento más emotivo. Fue difícil despedirse y montar en los autobuses de nuevo.

Fue imposible acercarse a la cárcel de Zaballa, unas patrullas de la Ertzaintza cruzadas en el camino nos impedían el paso. Bajamos de los autobuses, y se acercaron para decirnos que no teníamos autorización para concentrarnos, que podríamos ser todos identificadas y las posibles consecuencias...Teníamos claro cual era nuestro objetivo: hacer llegar nuestra solidaridad a Txus y a Ibon, por lo que buscamos otro sitio para que pudieran escuchar esa solidaridad.

La prisión de Basauri fue nuestro último objetivo, allí también teníamos a la Ertzaintza esperando, igual que anteriormente, que no teníamos permiso. Nos quedamos allí unos 15 minutos, unos gritos y cohetes para que Aitzol nos pudiese oír. Tras cantar el eusko gudariak dimos por terminada la marcha, con una valoración muy positiva a pesar de los obstáculos.

---

<https://eh.lahaine.org/eusk-cast-topasera-martxaren-kronika>